



Bidasoa - Txingudi

**“IBAI IZENA DUEN HERRIALDE BAT - BIDEZIDOR NATURALAK”
3. PINTURA-LEHIAKETA
BIDASOA-TXINGUDI 2018**

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak “Ibai izena duen herrialde bat” (2018) 3. pintura-lehiaketarako deialdia egin du. Hona lehiaketa honen oinarriak:

OINARRIAK:

PARTE-HARTZAILEAK:

1.- LEHIAKETA honetan nahi duten artista guztiek parte har lezakete, 18 urtetik gorakoak badira, eta beren bizilekua edo nazionalitatea edozein dela ere.

BALDINTZA TEKNIKOAK:

2.- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez LAN BAKARRA aurkeztuko du lehiaketara, teknika librea erabiliz. Egilearen sinadurarik gabe aurkeztu beharko dira lanak, eta lanaren titulua atzeko aldean agertuko da gutun-azal itxi batekin. Gutun-azalaren kanpoko aldean agertuko da aurkeztu den lanaren titulu berbera. Gutun-azalaren barruan adieraziko dira egilearen izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, lanean zein toki irudikatzen den, bizilekuaren helbidea, posta elektronikoa eta telefono zenbakia.

3.- Mihisean edo antzeko euskarrian egiten diren lanak bastidore edo euskarri zurrun batean aurkeztuko dira, MARKORIK GABE eta babestuta. Paperean edo kartoi mehean egindako lanak (akuarela, pastela, ikatz-marraskia, marraskia...) kristalarekin eta gehienez 1 cm-ko listoi batekin aurkeztuko dira.

4.- Lanak 46x33cm-ko NEURRI BAKARREKOAK izango dira (lana osorik, bastidorea, euskarria edo listoa barne), eta paisaia edo irudi gisa aurkeztu ahalko dira.

LANA EGITEKO IRIZPIDEAK:

5.- Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko eskualdeko bidezidor naturalak NAHITAEZKO erreferentzia izango dira lana egiteko, Irunek, Hondarribiak eta Hendaiak osatzen duten barruliaren barnean beliere. Bidezidorrek eratutako paisaian, ezingo da izan inolako eraikuntzarik, baina oinezkoak azaldu beharko dira.

SARIA:

6.- SARI bakarra emango zaio lehiaketa irabazten duen lanari, 500 (bostehun) eurokoa.

LANAK ENTREGATZEA:

7.- Uztailaren 27ra arte (ostirala), azken egun hau barne, oinarriak Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, aurkeztu ahalko dira lanak Bidasoko Interpretazio Zentroan edo Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren egoitzan, ohiko irekiera ordutegian.

EPAIMAHAIA:

8.- Epaimahaia 3 kidek osatuko dute, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa eratzen duten udalerrri bakoitzetik bat (Irun, Hondarribia, Hendaiak); idazkari gisa, ahotsarekin eta botorik gabe, Partzuergoko talde teknikoko kide bat.

Epaimahai honek, 32 lan hautatuko ditu gehienez, Bidasoko Interpretazio Zentroan, irailtik abendura arte egingo den erakusketarako. 32 lan horietatik, epaimahaiak irabazlea aukeratuko du eta honek, Partzuergoaren hiru hirietako ordezkarien eskutik, erakusketak inauguratzen den egunean jasoko du SARIA. Hala ere, data hauek aldaketak jasan ditzakete.



Bidasoa - Txingudi

LANEN ERABILPENA:

9.- Erakusgai jarriko diren lanak Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoko eta Bidasoa bizirik Agencia de Desarrollo del Bidasoa entitateko, Hondarribia turismoa, Irun Turismoa eta Hendaye Tourisme entitateetako, eta Irun, Hondarribiko eta Hendaia irudi-bankoaren parte izango dira. Artistek irudi hauen hedapena emateko eta erabilpena eskubide osoaz egiteko baimena ematen diete aipatutako entitateei.

KOADRO IRABAZLEAREN JABETZA:

10.- Mugaz gaindiko Partzuergoa bihurtuko da koadro irabazlearen jabea, eta egoki irizitako moduan eta ondorio guztietarako erabili ahal izango du

LANAK ITZULTZEA:

11.- Lanak Bidasoko Interpretazio Zentroan berreskuratu ahalko dira. Han emango da irteera agiria, asteartetik ostiralera 10etatik 14etara, zubietan eta jai egunetan izan ezik, epaimahaiak erabakia hartu eta 30 egutegi-egunen epean, baztertutako lanen kasuan, eta erakusketa itxi ondoren, 30 egutegi-egunen epean, hautatutako lanen kasuan. Interesdunei jakinaraziko zaien epe hauek gaintitzen direnean, antolatzaileek ez dute beraien gain hartuko jaso ez diren lanak, zeinak haien iritzia araberako erabili ahalko dituzte, ezta lan horiek galtzen badira edo kalteak jasaten badituzte ere.

ONARPENA:

12.- Lehiaketa honetan parte-hartzeak Oinarriak erabat onartzea eta Epaimahaiaren erabakiekin ados egotea dakartza, baita edozein erreklamazio egiteari uko egitea ere, eta Partzuergoko Presidenteak ahalmena du aurreikusi ez den gai oro erabakitzeke.

ARGITARATZEA:

13.- Oinarri hauek erakusgai jarriko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Partzuergoaren web atarian www.irunhondarribiahendaye.com eta Bidasoko Interpretazio Zentroko iragarki-taulan, oinarriak onesten diren datatik lanak aurkezteko epea amaitu arte.

14.-Era berean, informazioa Bidasoa-Txingudi eskualdeko komunikabideen bidez hedatuko da, baita elkarteetan edo Mugaz gaindiko Partzuergoa eratzen duten hiru hirietako udalen edo erakunde interesgarrien bidez (Irun, Hondarribia eta Hendaia).

BESTE ZENBAIT:

15.- Baztertu egingo dira lehiaketaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen ez duten lanak.

16.- Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorritik, datu pertsonalak artxibo espezifiko batean sartuko dira parte-hartzaileen datuak gestionatzeko lehiaketaren tramitazioa egiteko eta erakusketa antolatzeko. Artxibo horren erantzulea Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa da.

INFORMAZIOA:

Lehiaketaren antolatzailea: Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa - Kostorbe eraikina 1. Soilarua - Iparralde hiribidea z/g - Tfn: 00.34.943.63.30.76 (Apirilaren bukaeran, Ducourau Etxera lekualdaketa gauzatuko da - Hendaia kalea 8 - Irun) - Mail: consorcio@bidasoa-activa.com - Neguko ordutegia irailaren 16tik ekainaren 14ra: astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara eta astelehenetik ostegunera 16:00etatik 18:30etara. Udako ordutegia ekainaren 15etik irailaren 15era: astelehenetik ostiralera 08:30etatik 14:30etara.

Bi kasuetan jai egun eta zubietan izan ezik.

Erakusketa-lekua: Bidasoko Interpretazio Zentroa, Iparralde hiribidea, 63, Irun, Aduanako aintzinako eraikina, oinezkoentzako nazioarteko zubiaren ondoan. Neguko ordutegia, irailetik ekainera: asteartetik ostiralera 10etatik 14etara. Udako ordutegia uztaila eta abuztua: asteartetik ostegunera 10etatik 14etara eta ostiraletik igandera 10etatik 13:30etara eta 15etatik 18:30etara. Bi kasuetan jai egun eta zubietan izan ezik.

Irunen, 2018ko apirilak 19

LEHENDAKARIA,
José Antonio SANTANO CLAVERO jn.

